

Karkara

karkara.eus

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2015eko abuztuaren 28a · 364. zenbakia. 26. urtea



Turismoarenak Orion, zirenak eta direnak

Orioren turismo-eskaintza asko aldatu da, baina Orioko herriak beti izan ditu turistak erakartzeko amuak, bai lehen eta bai orain.

8

Elkarrizketa
Asier Santos

11

Adarretatik helduta
Idoia Etxeberria

20

Elkarrizketa
Jon Lasa

24

Argazkiak
Aiako festak

ANOBGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 -komertzial instalazioak - beira bikoitza
 -segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
 -ispluak - barandak - kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

eduzitegia
ANTILLA
juvelieria
 Abeslari katea, 2 - Tel. 013 83 23 00

LUXARBE
igeltseritza
 Igeitsenitza orokorra, denatarik egiten dugu.
 Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe.
 Lan txukuna eta merkea.
 Tfnos: 943 33 59 00

XS
 arkitektura
 obrak
 proiektuak
 emehabilitazioak
 txostenak
 eraikuntza zerbitzuak
 ITEak
 eraikinen mantenua
 barja agiresarabe lapelagi
 henko-baita 6, behea
 20600 zarautz
 6 3 5 7 3 1 7 2 2
 9 4 3 1 3 4 3 5 8
 xs@xsarkitektura.com

teifax: 943 89 00 69
 Bokaia kalea 4 - 20.600 ZARAUTZ
URBIDE
 ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA_BAINU ERAKUSKETA
 FOTOMETRIKO ERKIDIAK

Zaragueta
 Herri Eskola *orio*
 telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

ASADOR
XIXARIO
 Euzko Galtzer Etxea 2
 Tel. 943 300119 - 0810

ROSANA ARRUTI
 FOTOGRAFIA
 Telf: 943 83 58 45
 fotorosanaarruti@gmail.com

PERTSIANAK
AKO MAN
 Aluminio, PVC
 Venezianak
 Motorrak...
 Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK
 943 83 05 37 / 943 83 27 47

sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA
 LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAJNTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA
 TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJAK, DRAINATZE LINFATIKOIA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIA, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOIA (GAH)
 IBAI ÖNDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
 TF.: 943 130 577 685 718 595

364

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Idurre Telleria

Ale honetako**kolaboratzaileak**Jon Agirresarobe
Onetsine Arrizabalaga,
Idoia Etxeberria,
Zigor Esoain,
Iñaki Iturain,
Itziar Urretabizkaia,
Miren Zuloaga
eta Jose Antonio Zumeta**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaleakRodolfo Jimenez eta
Leire Zinkunegi (Orio)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.**LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Orioko hondartza abuztuko egun eguzkitsu batean.

HASI BERTSOTAN

ANTONIO ZUMETA, TXANKA (DOINUA: ERREGUETAN)

Onena itzala

1Bero handiak izan ditugu
joan ziren (e)ta pakia,
orain behintzat badaukagu
arnasa hartzeko bidia.
Nahiz eta hemen beroaren zain
egon ohi dan jendia,
bero (e)ta eguzkia nahi dunak
joan dadila Andaluzi(r)a.**2**Hemen ez dago beste bueltarik
(eg)iten duna hartu behar dela,
badakizue neroni behintzat
eguzki zale ez naizela,
(e)ta egia da gure aurrekok
esaten zuten bezela:
eguzki beroak duen onena
izaten dala itzala.**3**Esango dute ne(r)onengatikan
hau ari da ba horrela,
ikusten ditut gorputz guztia
dana erreta dutela;
ez dakit nola aguantatzen (du)ten
eguzkian azpian horrela
esango nuke ero guztiak
Santa Agedan ez daudela!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

publizitatea@karkara.com

**karkara.eus**

Errotonda Orioko kalea da, herri barrukoa

Ertzaintza eredugarria izan behar dugu. Horrela esan zuen Urkullu lehendakariak, auto gidari batek eta kamioilari batek errepide bazterrean lisakar bat izan ondoren, gizon batek beste bat tiroz akabatu eta gero.

Errepidea, gidarientzako borrokatoki. Estresatuta eta presaka bizi den gizaratean, handiagoa da indarkeria, areago errepideak duen inpunitate trazarrekin. Heziketa da giltzarria. Eta gizalegez aritzea ere bai. Errepidea, lasai, baketsu eta orekatu itxurako pertsona asko ipurterre, erasokor eta desorekatu bihurtzen diren eremua. Fiskalak gogoeta eskatu du polizia ereduaren inguruan. Kalparsororen iritzi, atxilotua ertzaina izateak erakutsi du zer bait ez dagoela ondo. Kasu bakana dela erantzun du Beltran de Herediak. Ekainaren 6ko Berriatik hartutako hitzak dira aurreko horiek denak.

Maiatzaren 28an Olaskoegia auzoko etxetik herriko musika-eskolara zetozen aita- semeak bizikletan. Bost urteko semea, kaskoa jantzita; aita, gabe. Lehenengo, bidegorri zati laburrean etorri ziren; gero, tren geltoki azpian, espaloitik; gero, zebra-bidea pasatu eta Erzillaneko etxearen ondotik espaloia hartu nahi zuten berriro aita- semeek. Han, espaloia ia osorik hartzen zutela, lau ertzain. *Alto, ha cometido usted una infracción por ir sin casco, tiene una multa de 90 euros*, horiek izan ziren lehenengo hitzak semearekin Olaskoegatik zetorren bizizalearentzat.

Eta bost urteko umea begira, aita polizia batek bide bazterrean geldiarazita, eztabaidan. Zer pentsatu ote zuen haurrak? Zer, sentitu?

Lege absurdo batek 16 urtetik behar-rakoak herri barruan ere bizikletan kaskoa jantzita ibiltzera behartzen ditu, baina 16 urtetik gorakoak ez. Erriorearen beste aldeko Orioko etxeetatik plazara bizikletan datozenek zubia pasatu behar dute. Zubia eta haren ondoko biribilgunea Orioko kalea izango dira, ba, ezta? Donostia aldetik dato-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

renarentzat Anibarko Portuan hasten da Orioko kalea, bide urbanoa, hiri-bidea, eta frantses fabrika pasatutakoan bukatzen, handik aurrera da bide inter urbanoa.

Utzi, mesedez, bizikleta zaleei bizikletan lasai ibiltzen. Ez uxatu. Erakarri jendea bizikletan ibiltzera. Bizikleta gainean jarri dena ez dago autoan, ez du kutsatuko, mantsoago joango da. Herri lasaiagoak egingo ditugu, ama-bleagoak.

Herri barruan bizikletan ibiltzeko hautua egin duena babestu egin behar da. Komunitatearentzako onura da. Lehendakariak eskatzen duen ertzaintza eredugarri horrek lagundu egin behar du bide horretan.

Udal agintariak ere badute beren ardua eta, jakina, beren eragina, haien esku dago ertzainei jakinaraztea eremu hura ere herri barrukoa dela, eta udaltzainei adieraztea trafikoa lasaitzen lagundu behar dugula denok.

■ Bizizalea

Aiako Gure Esku Dago, oporretan oporrik ez

Aiako Gure Esku Dagoko ekimeneko kideok lanean jarraitu dugu udaran, ekimena sendotzeko asmotan.

Abuztu hasieran, Aiako San Donato eta San Lorentzo jaietan, lau zozketa

egin genituen. Egun bakoitzean zozketa bat egin genuen, eta urdaiazpikoaren irabazlea zein zen egunean bertan esan genuen.

Hauek dira saridunak:

- Abuztuak 6, osteguna: 4709
- Abuztuak 7, ostirala: 5806
- Abuztuak 9, igandea: 1763
- Abuztuak 10, astelehena: 1688

Aiako Gure Esku Dagoko kideek eskerrak eman nahi dizkiegu zozketan parte hartu zuten guztiei.

Orain arteko bide beretik lanean jarraituko dugu, erabakia ehuntzeko.

■ Aiako GED

Aurten, bigarrenegoz, arraunaren zenbaki berezia irailan

Iaz lehendabizikoz egin genuen moduan, aurtengoan ere arraunari eskainitako zenbaki berezia argitaratuko du KARKARAK, Kontxako estropadaren ostean.

Aurtengo udan ere arraunari loturiko elkarrizketa eta artikulu ugari bildu dugu webgunean eta horiek zenbaki berezi batean kaleratuko ditugu irailan.

Zenbaki horretan arraunak denboraldi honetan emandakoa bilduko dugu, bai bateletan, traineruan eta aulki mugikorrean. ■ KARKARA

KARKARA banatzaile bila dabil, bidali zure CV

KARKARAK hamaika zenbaki kaleratzen ditu, normalean, urtero. Uztailean izan ezik, gainontzeko hilabeteen, azken ostiraletan argitaratzen da, salbuespenak salbuespen.

Papereko KARKARA horien banaketa egiteko jende bila gabiltza. Interesa duenak bidali zuen CVa email bidez karkara@karkara.com helbidera edo ekarri erredakziora. Eusko Gudari kaleko 26. zenbakian gaude, Kultur Etxeko lehen solairuan.

■ ZORIOTXARRAK!

Oinezkoak espaloi gabe uzteagatik

Bereziki udaran, bor-borka egoten dira terrazak Orion. Taberna barruak, ia hutsik; eta kanpoan, eguzkipean, edo itzaletan, jende mordo. Hondartzan edo herriaren erdigunean, leporaino egoten dira terrazak.

Uztailean bero itzela egin zuen eta ia egunero eguzkia izan genuen, nahiz eta sargoriaren ondorengo zaparradak ere bota.

Abuztuan eguraldia ez da horren beroa izan, eta beroa egin duen eguntan, iluntzerako giroa hoztu egin da.

Baina, hala ere, eguraldi hobe edo txarragoa izan, terrazak jendez gainezka egon dira. Begi bistakoa da lasai eseri eta kafe edo zerbeza baten konpainian uda giroaz gozatzea gustatzen zaigula.

Terrazek duten arrakasta ikusita, normala gero eta negozio gehiagok jartzea terrazak, baita gero eta terraza handiagoak jartzea ere. Baina neurrian handitu behar dira, oinezkoei pasabidea ixteraino hazi baitira batzuk.

Erregulatu egin beharko da terrazen tamainari dagozkion araudia; eta, ondoren, bete edo betearazi, guztiok izan dezagun udaz gozatzeko aukera, eseritea edo oinez.

■ JAIOTAKOAK

- Intza Larrañaga Iturralde, Orion, ekainaren 19an.
- Sara Eizmendi Manterola, Orion, uztailaren 12an.
- Mikel Elgarresta Aguirresarobe, Orion, uztailaren 28an.
- Nahiane Lasarte Segurola, Orion, abuztuaren 1ean.

■ EZKONDUTAKOAK

- Alejandro Alonso Perez eta Garazi Ibiriaga Zubimendi, Orion, maiatzaren 27an.
- Borja Gomez Peña eta Milagros Zubizarreta Jimenez, Orion, uztailaren 4ean.
- Xabier Agirre Uranga eta Anne Miren Etxeberria Barrenetxea, Orion, uztailaren 4ean.
- David Martinez eta Rebeka Justiniano Rodrigez, Orion, uztailaren 11n.
- Andoni Arriola Diez de Ure eta Jone Aierbe Isasti, Orion, uztailaren 18an.
- Angel Ostolaza Ostolaza eta Sara Azkue Olliden, Orion, uztailaren 30ean.

■ HILDAKOAK

- Eusebio Etxeberria Maioz, Orio, ekainak 30, 79 urte.
- M^a Teresa Agirresarobe Iburguren, Orio, uztailak 21, 77 urte.
- Justina Iparragirre Urkizu, Orio, uztailak 30, 89 urte.
- Manuela Beldarrain Esnal, Orio, uztailak 30, 86 urte.

Abuztuko sarituak

Sorkunde Lizaso

Izarra bideo

Ignacio Etxeberria

Argi Gaiak

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



libe
dietetika
elkadura aholkularitza

esteko guduak 35 - ORO

943 53 94 94 | 947 23 84 54

Karela Festa
guzuzko norgehiagoka IRAILAR 12

INDOOR TRIATLOIA
10:30-12:00
KORRINA 1,2 KM
BIKLETAN 2,5 KM
ERROMETRORAN 1 KM

DREAMING ON A BIKE
16:00-19:00
DIANTZA - CYCLING
ZUZENEAN
KARELAN

JUMP 17:00-18:30
HARRONEN BERTAN
PLAZAN

BPXport
BERRI BERRI

solidario@bpxport.es | info+ 647 265 891



Carlos Peña 24 ordu igerian egin ostean, Arraunetxean . HITZA



Bisiguaren Festan herriko plaza jatetxe bihurtu zen . KARKARA



Txupinazoarekin eta kalejirarekin hasi ziren festak Aian . KARKARA

Bero, fresko eta bustita

“Goizean goizetik hasi eta goizeko ordu txikiak arteko egitaraua prestatu zuten aiarrek bost egunetarako”

Ez zuen asmatu, ez, aurten udarik egongo ez zela esan zuen eguraldiko gizonak. Beroak itota eta izerdi patsetan pasa genuen uztaila. Adituen esanetan, azken urteetako uztailarik beroena. Hondartza betea, ur-izkina oraindik beteagoa eta, mareak uzten zuenean, moilak ere gainezka egiten zuen. Nola freskatu ezin jakinik ibili ginen, izozkiak ere erosi bezain pronto urtzen baitziren.

Freskatzeko aukera izan zuen Carlos Peña igerilariak, hogeita lau ordu pasa baitzituen Ori ibaian gora eta behera, minbizia duten haurren alde. Baina hura ere berotu zen azkenerako.

Fresko-fresko ibili ziren, baita, arku atlantiko osotik etorritako ia 500 kirolari gazteak. Joko Atlantikoek Oriara iritsi ziren lehen aldiz, eta herritarrak zipriztindu zituzten bost eguneko itsas-ikuskizunarekin.

Bero-bero zegoen herria, eta bero-bero Bisiguaren Festan parrillaren ondoan egon zirenak ere. Bisiguak ez ziren erre-tzean izerdia botatzen zuten bakarrak, kilo batzuk gutxiagorekin iritsiko zen etxera bat edo beste asteburu hartan. Moila ondoan arraunean ari ziren traineruen zipriztinen bat heldu bazitzaien, gaitzerdi.

Ederki busti direnak aiarrak izan dira. Euripean hasi zituzten festak, baina euria ez zen gai izan festa gelditzeko. Euritan dantzan aritu ziren aiarrak gau eta egun, goizean goizetik hasi eta goizeko ordu txikiak arteko egitaraua prestatu baitzuten bost egunetarako.

Bandera trapu bat da haizerik ez badabil. Baina Orioko bi traineruak prest daude Kontxako trapu preziatua astintzeko. *Aurten bai!* diote askok...

Nola bizi duzue arrauna Aian? Ba al dago afiziorik?



“Animatuko nituzke aiarrak arraun egitera”

Akaso ni izango naiz salbuespena, Oriotik gertu bizi naizelako eta Orioko haizeak Aiakoak baina gehiago jotzen didalako edo...

Kontua da beti izan dudala arraunarekiko afizioa, baina egia da Aian ez dituela jarraitzaile asko. Herri kirolek zale gehiago dituzte, afizio handia dute Aian. Arrauna ez da asko entzuten.

Niri arra duela urte asko sartu zitzaidan. Lagun bat arraunean zebilen eta berak, behin eta berriz, animatzen ninduen joateko. Eta ni konbentzitzea zaila ez denez, asko tematu gabe joan nintzen probatzera. Eta nik ere animatuko nituzke aiar gehiago arrauna probatzera!

Aitziber Lizarralde

Oposizioilea



“Estropadak telebistan ikusten ditut batzuetan”

Gaztetan beti joaten ginen Kon- txako estropada ikustera, bi asteburuetan izaten ginen Donostian. Orain, adina dela eta, ez naiz joaten, baina telebistaz ikusten ditut batzuetan estropadak. Zarauzkoak, adibidez, ikusi nituen.

Nahiago dut txandatan, launaka, egiten dutenean; erlojupekoa tristeza iruditzen zait.

Niri, hala ere, kirol guztiak gustatzen zaizkit. Harri-jasotzaileak, idi probak, ahari-jokoak... Azpeitira jaiero-jaiero joaten ginen eta lehen ere idi demak ikustera herri askotara joaten ginen. Herrian ere egiten dira, hortaz, hemen ere ikusten genituen.

Joxemari Azpiroz

Jubilatua



“Pilotak, adibidez, ikusmin handia sortzen du Aian”

Gogoan dut, txikiak ginenean, udan, arrauna egitera joaten ginela Oriora. Gaur egun ez dut arraun egiten, baina tarteka, lagun artean joaten gara estropadak ikustera. Izan ere, nire ustetan, arraunzale ugari gaude Aian. Gainera, geroz eta arraunlari gehiago dagoela esango nuke nik, nahiz eta Aiako kaskoan ez izan kirol hau egiteko aukerarik.

Pilotak, adibidez, herri txikietan ikusmin handia sortzen du eta Aian pilotari dezente daudela esan daiteke. Ni palan ibiltzen naiz. Nire aita ere palista zen, eta hortik sortu zitzaidan palan jarduteko grina. Beraz, berari esker nabil palan.

Garazi Eizmendi

Ikaslea

HAUR ETA HELMURTZARO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALIA, 1 - TEL: 943 13 49 40

100% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

SU KIA

On egiteko gero... Iarri KOPRA eta TOPAZI

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EOLINEKO MEMBRIA
- EDUNKATIAK
- OGIA

943 04 10 07

URAITZ

luminologia

paiz - ogiaz

Enketa, 5 - Tel: 943 04 10 07

Gabon

TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 63 06 09

“Gauzak ikasi eta azkar egin behar ditugun arren, oso ondo ibili gara”

Asier Santos Bikufia

Orioko Kanpineko zuzendaria

Erronkak atsegin ditu Asier Santosek -Bergara,1983-. Apirilean hartu zuen beregan kanpina kudeatzeko ardura, erantzukizun handiko erronka. Gustura dago, bai lan taldearekin, baita zerbitzuak duen harrerarekin ere.

OLATZARTOLA

180 graduko aldaketa eman du udal kanpinak. Azken legealdiko proiektu sendoa izan da eta proiektuaren gidaritza Asier Santosek hartu zuen udaberrian.

Orioko kanpinaren zuzendari berria zara. Erronka anbizio handikoa iruditu zitzaizun?

Kanpineko deia jasotzeak harritu egin ninduen, baina, gero, lana zein izango zen azaldu zidatenean, ulertu nuen zergatik bilatzen zuten nire profileko pertsona bat.

Zergatik?

Kanpinear beste baliabide batzuk eskaini behar ziren, kudeaketari eta bezeroen arretari lotutakoak, eta, horretarako, beste ikuspuntu bat nahi zuten. Enpresa kudeaketan eta talde lanean esperientzia zuen pertsona baten bila zebiltzan.

Hainbat enpresatan egin dut lan, hainbat esparrutakoak. Nire burua proban jartzea eta erronka berriak lortzea gustatzen zait. Hortaz, nahiz eta arraroa izan Kanpineko eskaintza jasotzea, erronka honek zekarren erantzukizuna interesgarria iruditu zitzaidan.

Eta, nolakoa izan da hasiera?

Goi-denboraldia ate zegoela hasi nintzen. Nire ustez, denbora handirik gabe lanpostura ohitzeko.

Horrek erronka are handiagoa egiten zuen, beraz, esfortzu handiagoa egin behar izan nuen, azkarrago ikasi behar bainuen. Oso ondo joan da.

Beteta kartela behintzat jarrita izan duzue ia egunero.

Ekaina amaieratik aurrera, goi-denboraldian, topera izan gara hasiera-hasieratik. Eguraldiak batzuetan beteta ez egotea baldintzatu du, baina, orokorrean, lepo ibili gara.

Baina, niri, beteta egotea baino garrantzitsuagoa iruditzen zait bezeroarengandik jasotako erantzuna positiboa izatea.

Eta hori nolakoa izan da?

Oso ona. Jendea oso pozik joan da, erreferentzia oso onak eman ditu eta bezero berriak erakarri ditu. Egin diren aldaketak oso harrera ona izan dute, bezeroek asko eskertu dituzte.

Zer aldaketa egin dira?

Udaleko bulego teknikoaren laguntzarekin batera, Kanpinaren itxura zaintzeko eta estetika berritzeko esfortzu handia egin da. Eta kudeaketa aldetik ere aurrerapausoak eman dira. Guztia txukunago eta ordenatuago dago, eta gauzak azkarrago egiten dira. Paperaren erabilera asko gutxitu dugu. Horrek, besteak beste, kudeaketa eta arreta zerbitzua txukunagoa eta azkarragoa izatea ekarri du. Hori da niretzat garrantzitsuena dena.

Martxan jartzeko oso denbora gutxi izan dugun arren, goi-denboraldian gauzak ikasi eta denbora gutxian egin behar diren arren, oso ondo ibili gara. Aurtengo zailtasun eta aldaketa guztiekin, langileek erantzukizun handia hartu dute eta oso ondo ari dira egiten beren lana.



Ezkerrean Asier Santos kanpineko sarreran eta eskubian kanpineko hainbat langile . KARKARA

“Aurtengo zailtasun eta aldaketa guztiekin, langileek erantzukizun handia hartu dute eta oso ondo ari dira egiten beren lana”

Bungalowek harrera ona izan dute, ezta?

Bungalowek bezero berriak ekarri dituzte, hotelen baliabideak eta kanpinaren erraztasunak baitituzte. Eguraldiaz kezkatu gabe, urteko edozein sasoi hartu dezakete kanpinen ostatu, herri ondoan, mendiaren magalean eta hondartzatik oso hurbil; eta hori, erakargarria da.

Bezero berriak ekarri ditu bungalowak izateak. Eta, zer egin duzue betiko bezeroekin?

Bezero finkoei arreta pertsonalizatua ematen zaie, nire ateak zabaldu dizkiet. Iradokizun erregistro bat daukagu, *TripAdvisor*eko gune bat zabaldu dugu kanpoko bezeroen iritzia jasotzeko, eta erraztasun gehiago ematen zaizkie, baina baita zorrotasuna exijitu ere, kanpinaren arauak betetzeko eta garbitasuna nahiz ordena mantentzeko.

Oraindik gongo da zer hobeturik.

Beti daude hobetzekoak, bote lasterrean gauza txikiak etortzen zaizkit gogora: lore gehiago jarri, wifia hobetu... Uda sasoi bete-betean gaudenez, akatsetatik azkar ikasi, aplikatu, eta urte bukaeran hausnarketa orokorra egin beharko da.

Zu pozik zaude esperientziarekin?

Askatasuna daukat gauzak nire erara egiteko, eta profesionalki ondo datorkit. Erantzukizun handia izatea ere gustatzen zait. Falta zaidana urte osoan eguzkia egitea da, sasoi guztietan bezeroak izateko eta nik kolorea hartzeko.

Udako kanta



Onetsine Arrizabalaga

Tkasturte berria hastera doa eta udako balantzea egiteko garaia ere izaten da iraila. Atzerrian bizi arren, Josu Zubiak eta Julio Sotok uda honetan idatzitakoak irakurri ditut, tabernetako euskal musika falta eta jartzen dituzten kantuen letra *sakon* eta sexistei buruz idazten. Eta gai berari helduko diot oraingoan: zer dago udako kantuen atzean?

Etxera egin nuen azken bisitan, festarako denbora gutxi izan nuen tamalez, baina *Arremanitzekoek* Azkoitian antolatutako TO! -Tratu Onen- festan izan nintzen. TikTara saltseroekin euren *Hariak* izeneko lan berriaz gozatu eta dantza piloa egin nuen.

“Kalitatezko musika talde asko dago Euskal Herrian, musika estilo askotarikoak”

Betidanik izan ditut saltsa doinuentzako hanka arinak; baina, letrari erreparatzeak, gogaitu eta maiz nazkatzen nau ordea!

Aurten iritsi da adibidez *Tacatá* kanta Alemaniako irratora, eta jartzen dutenero itzali edo leihotik botako nuke... Ez hala TikTara edo La Jodedera bezalakoak entzuten ditudanean.

Beste hainbat alorretan bezala, kalitatezko musika talde asko dago Euskal Herrian, musika estilo askotarikoak. Kontxarako prestatua dut datorren bidaia eta ea #AurtenBai, Orioko neska-mutilak punta-puntan ibiltzen diren, eta tabernetan aurtengo udako euskal kantuak ezagutzeko parada dudan. Nire proposamena: TikTara taldeak egiten duen *Ez pentsa* kantaren bertsioa!



Itziar Urretabizkaia

Taila jarri didazu One, zeren ni ere denbora da ez naizela inguru hauetatik parrandan ibili! Hori bai, esan beharra daukat herrian atera nintzen azkenengoz *reggae-tona* entzuteaz nazkatuta bukatu nuela. Esan beharrik ez dago ez nuela dantza izpirik ere egin, ez baitut musika mota hori batera gogoko: ez erritmoa eta are gutxiago mezua –horrela deitzerik baldin badago–.

Atentzioa emateko modukoa iruditzen zait euskal tabernetan, edota, herriko festetan horrelako musika jartzea. Hemengo musikarekin fusio motaren bat izango balu, agian, interesgarriagoa irudituko litzaidake, Onek aipaturiko TikTara taldearen antzera, baina oraindik behintzat ez dut horrelako ezer entzun.

“Klasikoekin geratzen naiz, Sarri sarri udan entzuten badut, horixe da nire udako kantua”

Soziologoak dagoeneko aipatzen ari dira musika honek datozen belaunaldietan daukan eragina emakumeenganako tratuan, baita beren jarreran ere. Hiri handietan garbi ikusten da, ez dakit hemen ere horrela den.

Oso irratizalea ez naizenez, ez daukat ideiarik ere aurtengo udako kanta zein izan daitekeen: ikusi dudak bakarra da telebista lehiaketetako *ezagun* batzuek hainbat abesti atera dituztela helburu hori lortzeko intentzioarekin. Niri bost. Sentitzen dut, baina klasikoekin geratzen naiz: Kortaturen *Sarri sarri* udan entzuten badut, horixe da nire udako kantua. Agian amonduta nagoen seinale!

Martxoko hazia abuztuan lore



Miren Zuloaga

Nahi gabe egiten diren kritika txarrek mina egiten digute; datozen urteetarako egin ditzazkegun hobekuntzak onartzen dira, baina modu egokian esanez gero

Adirudi martxoan Aiako Jai Batzordeak landatu zituen loreak bere fruituak eman dituela. Urtero egoten gara egun hauen zain, ni behintzat iristeko irrikitan egoten naiz; eta, aste itzela pasa ondoren, festa alaiak eta ederrak pasa ditugula ondorioztatu dezaket. Festetako programazioaren inguruan hainbat aipamen egin nahiko nituzke:

Aurten, abuztuaren 6an, nobedade gisa Zumba Maratoi Herrikoia egitera animatu ginen, eta, nire iritiz, arrakasta handia izan zuen. Adin guztietako pertsonak animatu ziren orain modan dauden kantak dantzatzera, bai neska eta bai mutilak, eta giro bikaina sortu zen. Arratsalde horretan ikasitako dantzek gauetan –batez ere– zeresana eman dute, jendea animatu egin baita ikasitako koreografiak praktikatzera.

Bestalde, festa guztietatik gehien gustatzen zaidan egunetako bat, abuztuaren 8a da, umeen eguna, hain zuzen ere. Goizean Guraso Elkarrekin umeentzat hainbat jolas antolatzen ditu, eta umeen aurpegia ikusi besterik ez dago zenbat disfrutatzen duten antzemateko. Arratsaldean, berriz, pailazoak eta Gorriti beren animaliekin egoten dira, urtero bezala. Ondoren, kalejira luzea eta alai herriko kaleetan zehar, bertako trikitilari, pandero-jotzaile eta buruhandiez lagunduta. Egunari amaiera emateko, hainbeste urtetan gure plazan arratsalde eta gauetz kantari ibili den Egan taldea! Behar bezalako despedida egiten saiatu ginen!

Azkenik, aipatu, nire ustez, lan handienetakoa duen jarduera, Karroza antolatzeari dela. Urtero, jendea gustatuko zaion ideia bat pentsatzeak lan handia suposatzen du. Beti saiatzen gara ahalik eta dibertigarriena egiten, baina beti ez da nahi bezain ondo ateratzen. Ondorioz, nahi gabe egiten diren kritika txarrek mina egiten digute; datozen urteetarako egin ditzakegun hobekuntzak onartzen dira, baina modu egokian esanez gero. Hori guztia esan ondoren, nire zorionik beroenak lanean ibili den mundu guztiari! Gora Aiako Jai Batzordea!



Iñigo Exposito

Zaindu maite duzun hori

Ada hilabete pasatxo, egunero, Matia Fundazioko zaharren egoitza aurretik pasatzen naizela. Pasabide normal bat dirudi, baina hango aitona-amonak beren denbora librean ikusteak zerbait berezia eragiten du sabelean. Ohikoa da han daudenen, seme, alaba biloba, anai edota arrebak berekin paseoan ikustea. Baina dena ez denez arrosa kolorekoa, badira bakarrik ikusten diren pertsonak, aurpegi goibela soinean.

Gogorra da handik igarotzea, baina gogorrago izan behar du egoera horretan egotea. Batzuk, dagoeneko, begirada galduarekin pasatzen dituzte eguneko ordu gehienak eta askok ez dakite ezta non dauden. Sendagaitzak dira Alzheimer eta modu horretako gaixotasunak. Gutxiena espero denean eta abisurik eman gabe etortzen diren horietakoak dira, gainera. Triste eta latza, adjektibo gutxik deskribatu dezaketenean egoera.

Segundo batzuk igaro ditut bakarrik dauden aitona-amonari begira eta amorrua eragin dit barrenean. Inongo errurik gabe benetako errealitateak ihes egitera eramanez ditut patuak. Egia da zaila bilakatzen dela berakin egunerokotasunean jardutea, baina kontuan izan gutako askok modu horretan amaituko dugula eta guztiok nahiko dugula babes bat izan. Hausnartu dezagun momentu bat eta pentsatu dezagun zein tristea izan behar duen egoera horietan inoren maitasunik ez jasotzea.



Herriarekin batera eraldatu da turismo-eskaintza

Donejakueren iparraldeko bidea, Arraunetxea, gastronomia.... **Asko dira bisitariarentzat Oriora etortzeko amuak.** Azken urteotan aldaketarako apustuak egin dira eta turismoak gora egin du Orion.



TESTUA: IÑAKI ITURAIN ETA KARKARA
ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAIN ETA KUTXA

Turismoa Orion ez da ekonomiaren oinarri, eguraldiगतिक ia udako hilabeteetara mugatzen delako; baina badu bere garrantzia, eta ez bakarrik ekonomiaren ikuspegitik.

Azken urteotan turismo-bulegoa ere badu, Goiko Kalean dagoena, Done Jakue bidearen erakusketa-museoarekin batera.

Gaur egun, kanpina, hondartzako Balea hotela eta autopista ondoko Txanka Erreka hotela dira kanpotarrak hartzeko Oriok eskaintzen dituen azpiegitura sendoenak. Aldape baxerrian, hango Rosa Mari Arrutik Santiago bideko erromesentzat jarri zuen aterpeak ere mundu guztiko ibiltari asko hartzen du. Horiez gain, badira herrian ostatu bat –Xaloe eta landa-etxe batzuk ere: Aizperro, Itsaspe, Amalur, Igeldo, Erretzabal Txiki eta Lusarbe.

Turismoaren hasiera Orion

Orain iragana dira Toki Alai eta Esnal hotelak, baina garai batean leku berezia bete izan zuten bi hotel hauek Orioko bizitzan: haiek ziren herrira iristen ziren kanpotarrak hartzen zituzten ostatu bakarrak.

Hotel Toki Alai: Cuisine française. On parle français

Horixe zegoen idatzita erriorearen aurrean eta zubiaren ondo-ondoan zegoen hotelaren paretan, orain izen horixe duen EAJren batzokia dagoen tokian.

Toki Alai hotela eta jatetxea zen. XIX. mende bukaerakoa zen etxea. Hasieran Kolon izena izan zuen. Hortik dator plazako tabernaren izena ere, Kolon Txiki, jabe berberarena izan zelako.

Urte askoan Toki Alai izan zen Orioko erdigunea, hantxe egiten ziren herriko ospakizun gehienak, eta gauza bat seguruaren: handikinor ez zen goserik aterako. Orion inon ez zen gertatzen izena eta izana hain berdintsua izatea Toki Alain



baino. Bazkaria sei pezeta eta erreal batean ematen zuten 50eko hamarkadan. Autobuskadak etortzen ziren kanpotik, batez ere Errenteria eta Donostia aldetik, eta frantsesak. Bazkal ondoren musika jartzen zuten, trikitixa, Sole eta Olarra, filarmonika eta jazzbana –bateria– jotzen, eta jendea bertan geratzen zen. Diru gehiago ateratzen zuten kafea eta zerbezak ematen bazkariarekin baino.

Marrota baserriko Juanito Atorrasagastik hartu aurretik, bere arreba Mariak izan zuen Toki Alai. Hark utzitakoan pasatu zen Juanito Bar Centraletik –gerora Amilibia taberna– Toki Alaira. Horregatik deitzen zioten Toki Alairi Central.

Hotel Esnal

1948ko abenduaren 5ean zabaldu eta 60 urtez egon zen zabalik, Modesta Enea. Bertan jardun zen lanean Modesta, 1998an hil zen arte, bere bi alabekin: Mari Kruz eta Eugeni.

Hitz hauekin eskaintzen zuten zerbitzua: Erosotasun modernoa. Primeran kokatua. Terrazatik ikuspegi bikaina, Orio erdi-erdian. Frantsesez eta ingelesez hitz egiten dugu. Aretok edozein ospakizunetarako: festak, tea, ezkontzako bazkaria, bataioak, jaunartzeak, omenaldiak... Goi mailako sukaldaritza, frantsesa eta espainola. Herrialdeko plater tipikoak. Egunkoa eta kartan. Bar amerikanoa –Aperitiboak – banderillak.

Udal Kanpina

Herria turismoa benetan kontuan hartzen 1960an hasi zen. 1961ean Orioko Kanpina zabaldu zuen Udalak, nahiz eta Do-

“Portu baserriko Indok zalgurdia jarri zuen herritarrak hondartzara gerturatzeko”

“Herria turismoa benetan kontuan hartzen 1960an hasi zen”

ZENBAKIA

7955

Turismo bulegoko bisitariak 2014an. Horietatik %31 EAEkoak ziren, %43 espainiarrak eta %26 kanpotik etorritakoak. Gainera, horietatik 2.310 erromesak ziren. Donejakue Bidearekin harreman zuzena duen Interpretazio Zentroak 960 bisita izan zituen iaz.



nostiako Garoa bidaia-agentziari eman zion haren kudeaketaren ardura, hogei urterako. Udalak 1981ean hartu zuen kanpina beregain eta ia bikoiztu egin zuen kanpinaren tamaina.

Beste aldaketa nabarmena 2011n hasi zen ematen: kanpindendak eta karabanak jartzeko lekuaz gain, bungalowak jarri baitzituzten turisten eskura, 34 guztira: 6, logela batekoak; 22, bi logelakoak; 4, hiru logelakoak; eta bi, egokituak.

2013ko ekain amaieran abiatu zuen Orioko kanpinak bungalow-zerbitzua. Ireki berritan harrera ona izan zuten, bungalowen %30 bete baitzen uztaileko lehen asteburuan.

2014an ikusi ziren aldaketaren fruituak, azken hamarkadako urte onenarekin –2010– alderatuta irabaziak 3,37 biderkatu baitziren. 2004tik 2013rako tartean 90.089€ irabazi ziren guztira; eta 2014an, urte bakarrean, 155.106. Iaz fakturazio errekorra izan zuen kanpinak: 636.990 €, BEZa gabe.

2015ean ere datu onak lortzen ari da kanpina. Uztailean eta abuztuan *Beteta* kartela jarri behar izan baitute sarreran.

Hondartza

Garai batean arriskutsua zen arrantzaleentzat lehorreratzeari, olatuak erri berraino sartzen baitziren. Olatuen bidea oztopatu zezakeen barra txikia zen oso. Hondartzarako bi bide zeuden: plaia handirako bata eta plaia txikirako bestea –oraingo kirol portua–. XX. mende hasieran Dato palazioa eraiki zuen Perez-Agote familiak, orain autopista pasatzen den eremuan. Lursail handiko eremua zen hondartza aldea, eta 1960 urtera bitarte

palazioa, San Juan ermita, hondartzan lau txalet eta txabola bat besterik ez zegoen eraikita.

Kanpina eraikitzearekin batera, tabernak jartzen hasi ziren. Aurrenekoa Alberdinekoek jarri zuten, orain Galerna jabetxea dagoen tokian; gero sortu ziren Mariñela, Alanbrerorena, Boga-Boga, Txu Txu...

1978an futbol zelaia egin zen hondartzan, zati belartsua aprobetxatuz. Aldaketa nabarmena 1990eko hamarkadan etorri zen, orduan hasi baitziren eraikitzen itsasoko barra erraldoia, kirol-portua, bestaldeko zabalgunea, hotela eta kanpin ondoko etxe guztiak eta hasi zen hondartza aldea hartzen orain duen itxura.

Hondartzaren kalitatean eragina izan dute obrek. Hondarra lodiagoa da orain, zakarragoa. Itsasoko uraren korrontea eta olatuen norabidea aldatu egin dira. Herritar batzuk, tartean surflariak, haserre daude, eta eztabaidak izan dira.

Iaz, denboraleak espigoia puskatu zuen. Kalteak konpontzeko, barraren muturra bi metro altxatu dute.

Portuko zalgurdia eta txu-txu tren

Hondartza herrigunetik kanpo egoteak auto eta garraio mugimendu handia ekarri izan du beti Oriora. Arazo horri konponbidea emateko saiakerak beti egon dira. 1970eko hamarkadan Udala kanpotik zetozen automobilerik kobratzen hasi zitzairen hondartzara joatea, autopista azpialdean. Garai bertsuan, Portu baserriko Manuel Indok zalgurdia jarri zuen herritarrek hondartzara gerturatzeko; hasieran, pezeta baten truke. Orioko lehen txu-txu trenak izan zela esan daiteke. Be-



netako txu-txu trena, ordea, 2009an jarri zuen Udalak, empresa bati alokatuta, eta handik bi urtera erosi.

Hondartza baino zerbait gehiago

2014ko datuen arabera, ekainetik irailera 7.955 bisitari pasatu ziren turismo bulegotik. Horietatik %31 Euskadikoak, %43 Espainiatik etorriak eta %26 kanpotik. Oriok turistak erakartzen ditu, eta bisitarientzat duen eskaintza nahiko zabal da.

Gastronomia aberatsa eskaintzen dute herriko jatetxeek. Bisigua izan da 1960ko hamarkadatik hona Oriorekin estuen lotuta agertzen den amua. Urteotan jende asko etorri da Oriora bisigua jatera. Bisigua jateko Orioko estiloa ere zabaldu da bazterretan. Azken urteotan propio ospatzen da bisiguaren eguna uztailean.

Orio herri euskalduna izateak ere erakartzen ditu hainbat talde, gure artean euskararen erabilera indartzeko edo bertsoan ikasteko egonaldiak egitera, bai Txurruka kanpalekura bai Itxaspe baserriko aterpera.

Hondartzaz gain, bada hainbat jarduera egiteko aukera ere: surfa, parapentea Kukuarritik, erriean arraunean... Arraunetzek, Begi-bistan enpresaren bitartez, aukera zabala eskaintzen du: kayakean eta traineruan ibil daiteke, raftinga edo padel surfa egin, bisita gidatuak...

Iparraldeko Donejakue bidea Oriotik pasatzen dela-eta, erromes ugari geratzen dira herrian. 2009ko urrian Kale Nagusiko Iturriaga jauregian interpretazio-zentroa ireki zuten; 2014an 960 bisita izan zituen. Bulegotik pasatutako erromesen kopurua gora egin du: 2012an, 1.806; eta 2014an, 2.310. Jatorriari dagokionez, mundu osoko lekuetatik datoz: Madril, Katalunia, Frantzia, Alemaniatik, AEBk, Hegoafrika, Japon, Brasil eta beste hainbat lekutatik datozenak ere badira.

Hotel Restaurante

Confort moderno
Magníficamente situado

Terrazas sobre espléndido panorama
en el centro de Orio

SE HABLA FRANCÉS E INGLÉS

Salones para fiestas,
tes, almuerzos de bodas, bautizos,
comuniones, homenajes, etc.

Cocina selecta francesa y española
Platos típicos del país
Menú fijo y a la carta

Bar americano - Aperitivos - Banderillas

HONDARTZAKO UDAL ARAUDIA 1939 URTEAN

Orioko Udalak 1939ko ekainaren 23an, gerra bukatu berritan, alkate Antonio Echaniz zela, 19 puntu zituen araudia ezarri zuen herriko hondartza erabili nahi zutenek bete beharrekoa.

Hona, bitxikeria moduan, orduko ordenantzaren arau batzuk:

- 1.- Honako hauxe da bainurako ordutegia: Uztailean, goizeko bostetatik arratseko zortziak arte, abuztuan, bostetatik zazpietara eta irailean zazpietatik zazpietara.
- 2.- Ordu horietatik kanpo, ezingo da inola ere uretan sartu.
- 3.- Herrian ezin da ibili bainu jantzian, ezta gainetik bainubata jarrita ere.
- 4.- Ezingo da arropa aldatu horretarako dauden kabinetatik kanpo; era berean, ezingo da jarrera desegoki edo itsusirik erakutsi.
- 5.- Bainu jantziek honelakoak izan behar dute. Emakumezkoek bainu jantzi osoa, bizkarra, bularra eta bi alboak ezkutatuko dituen, eta gainetik belaunetarainoko gona izango duena. Gizonezkoek, ohiko bainu jantzia, bizkarra, bularra eta alboak estaliko dituen, eta gainetik kirol gal-tza zabalak.
- 6.- Inola ere ezin da eguzkia hartu hondartza osoan. Eta etzan ere ezin da egin, bainu jantzian.
- 7.- Araudi hau betetzetik libre geratzen dira bost urte arteko haurrak, gainerako guztiek bete beharrekoa da.

OSPAKIZUNA



Yasmin Essadiren ospakizuna

Yasmin Essadi Bouaouda naiz eta 7 urte ditut. Uztailean ospakizun be-rezi bat egin nuen nire etxekoekin eta lagunekin. Nolabait esateko, haur kristauak egiten duten lehen jaunartzearen antzeko zeremonia bat, Marokoko tradizioaren arabera, gure jantzi tipikoekin eta hennazko ta-tuajeeekin. Ospakizuna 2015eko uztailaren 14an egin genuen -musulma-nen egutegian, 1436ko ramadanaren 27an- eta oso ondo pasa genuen.

HANDIK ETA HIEMENDIK



"Abertzale moduan, ozen aldarrikatzen dugu herri honenganako maitasuna, lanerako prest gaude"

Ainhoa Usandizaga, EGIko idazkaria, EGI Gipuzkoa, uztailaren 30a.

"Gure taldearen goranzko bidean ondo goazela berrestea litzateke sailkatu eta bandera bat irabaztea. Urtez urte hobetzen ari gara, eta aurten beste pauso bat nahi dugu bide horretan"

Nadeth Agirre, Orio Arraunketa Elkarte-ko patroia, Berrian, uztailaren 10ean.

Kinikladenda - Uma arropa

 www.lesoniel.com/argine
 Tel: 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEI TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
 jatetxea

 Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

GARMENDIA
 NIMOLJARIA - AHOKULARTZA - ASEGURUAK
 Ibai Ono, 1
 Tel: 943 834 486 - Fax: 943 132 941

HAIZE BERRI
 jantzi-zerbitzu-zerbitzuak
 Plater konbinatuak, beurrak, hantxurgasak, ruzioak, eguzko menua...
 eta etxera eramateko zerbitzua!
 Bideak: Tolosa 1 - 48 000 01 01 Berriena (gaurerako)

ITZALA
 herriko jatetxea
 943 83 12 59

UTZIAR
 kirolak

 Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
 Asegurari-agerilea
ASEGURUAK
 C C I
 CERRAL, GARTE, SACOT & CIA, S.A.
 Abeslari, 4 - 2. esk.
 Tfnoa: 943 13 46 07

KOLON TXIKI
 jantzi-zerbitzu-zerbitzuak
 Herriko Etxerantz, 4
ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Zarautz
 Hileta Zerbitzuak
 > Hilerrien kudeaketa
 > Hileta zerbitzu orokorrak
 > Zerbitzu iraunkorra

Harrespil
 Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 - ZARAUTZ - Gipuzkoa - Tel.: 943-89 49 37 - Faxa: 943-89 49 41 - e-posta: zarautz@harrespil.net



Euskadiko kirolariak Joko Atlantikoen irekieran. KARKARA

500 gazte inguru itsas-kiroletan lehian

Gales, Irlanda, Britainia, Eskozia, Pays de la Loire, Nafarroa, Portugal, Kuba, Galizia, Asturias, Kantabria... arku atlantikoko hainbat eskualdetatik etorritako ehunka gazte aritu ziren uztailaren 13tik 16ra Orion eta Zarautzen uretako kirolean lehiatzen. Surfa, piraguismoa, bela, arrauna, igeriketa eta ur irekietako kirolez gozatzeko aukera izan zuten itsasertzera edo Oria ibaira gerturatu zirenek.



Kofradia berriko zabalgunea belaontzi txikiz bete zen. KARKARA



Sorospen probak hondartzan egin zituzten. KARKARA



Parapentean jaitsi zuten irekierako bandera. KARKARA



Avirongo gazteak taldekideak animatzen. JOXEMARI OLASAGASTI

Euskadi, Joko Atlantikoetako garaile

Euskadi izan zen domina gehien lortu zituena eta, beraz, Joko Atlantikoen txapelduna. Piraguismoan eta surfean nabarmendu ziren, batez ere, euskal dunak. Orio A Eko hamar arraunlarik hartu zuten parte euskal selekzioarekin, eta Ibon Urbietta aritu zen prestatzaile lanetan.

Abante txalopa!

Jon Lasa

Itsas ingeniaria

Hasiberriaren ilusioa. Marinel erretiratuen jarioa eta sinismena. Abentureroa eta bohemioa hortzetaraino, hona hemen azalpena: hara eta hona belaontzian ibilia eta herrian dagoenean bizimodua ontzian egin zalea. Sortzaile guztiak bezala barruko galderak mugitzen du, baina iparra galdu gabe dabil lanean. Zientzia du sinismen bakarra: distantzia eta denboraren arteko zatiketa baita abiadura, munduan eta Ubegunen hartu duen lanerako lokalean. Hona hemen Jon Lasa, Branka Composites enpresaren sortzaile eta arima. Trainerua egin du eta uretan izango da aurki, baina naufrago itxurako itsas ingeniariaren asmoak ez dira hamahiru apostoluetara mugatzen. Ikerketa, nabigaziorako diseinuak edo ideiak eta karbono zuntza lantzeko teknika berriak dakartza.

TESTUA: JON AGIRRESAROBE

ARGAZKIAK: KARKARA

Plazan kotxean sartu eta errioz beste aldera eramán gaitu, lan lekura. Han dago traineruaren modelo, egurrez egin. Lasak azkazal tarteak belztuta ditu aspaldi, muturraren aurrean daukagun ontzia lehen proiektuaren biloba delako, hirugarren jenerazioko trainerua. Gainera igotzeko gomendatu dit, sentsazioak behar bezala bizitzeko. Gozameña izan da berakin pasa dugun iluntzea, eta giro hori zuei transmititzeko, gure artean egin bezala, hitanoa erabili dugu.

Errio ertzean ezagutu haugu beti: arraunean, uretan igeri, ontziren batekin jolasean. Azkenean ofizio bihurtu.

Gogoan diat Justo Agirrebeña zenaren motorrean sartu nintzenean ontziak egin zian kulunka. Horixe duk umetako lehen oroitzapena. *Ur-gain* etxean bizi gintuan, eta umetako oso oroitzapen ederrak dizkiat. Beti ur-bazterrean, saltsan. Arrasto handia utzi zidak itsasoak, erriok eta marearen

gora-beherak, gerora hartu ditugun erabakietan ere eragina izan ditek, zalantzarik gabe.

Arraunean ibilitakoa haiz, Joxemari Olasagastiren artxiboak ez ziok gezurrik.

Hala duk. Asko gozatu nian, baita ikasi ere. Talde lana eta diziplina dituk arraunak emandako lezioak. Sufritzera gindoa-zela jakin eta halere gustura joan, hori dik arraunak. Orduko Lasa finak ez dik gaurko idiskoarekin antza handirik, baina asko ikasi genian tostarrean.

Barka atrebertziak Lasa: uste diat unibertsitateko lehen esperientziak hautsi ziala arraunak emandako diziplina gaitasuna. Kantuak dioen bezala estudioak ikasitzera Salamankara bialdu, baina motibazioa ez duk botikan saltzen.

Ez nian batere garbi zer estudiatu. Itsasoari lotutako zerbait egiteko aukera garbirik ere ez Coruñatik Jerez de la Frontera tartean. Botikari ikasketak egitea erabaki errazena izan zuan. Baina ez nian fundamenturik egin. Handiena festara-



ko. Hogei urterekin, ordea, aitak animatu ninduen itsas ingeniari-tza ikasketak egitera Southamptonera joatea.

Salamanka eta Southampton. Gaua eta eguna.

Ingelesa ikasten aritu ninduan lehen hilabeteetan, irailean eskolan hasteko. Lehen egunetik harritu ninduen unibertsi-tateak. Hezkuntza modua izugarri aldatzen duk eta gizartean eragina dik, ez izan zalantzarik. Esaterako, matematikan edo fisikan ohituta gaudek formulak nondik datozen ikastera. Han formula horiekin zer egin irakasten zigutean. Esango diat: inoiz egin dudana azterketarik zailenean, apunteak, aurreko urtetako azterketak eta internet erabiltzeko aukera izan genian. Arazoari soluzioa aurkitzeko eskatu zigutean. Erreminta guztiak eskura izanagatik beste zerbait behar duk: imajinazioa, etorrera... Imajinazioa ezagutza baino garrantzitsuagoa duk. Burua paraxuta bezalakoa duk, irekitakoan bakarrik funtzionatzen dik.

Itsas ingeniari-tza ikasten hasi eta pare bat urtera trainerua gauzatzen hasia hintzen. Azkarra; lehorrean behintzat bai.

Mutil kozkorretatik nian traineru bat sortzeko gogoia. Bu-

ruan gauza asko nizkian, baina ontzi bat egiteko laguntza behar duk. Lehen aukerari heldu nioan: Mikel Arostegi arraun-lari eta umetako lagunaren bitartez izan nian *Tknikaren* berri, Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako zentroa duk. Karbono zuntza nola manipulatu aztertzen ari zituan, aspaldiko molde batetik ateratako traineru bat egiteko asmotan. Alegia, ontziaren diseinua berri-tzeko asmorik ez zitean, atrebitu eta proiektua aurkeztu nuen arte. Segituan hasteko esan zidaten.

Usaimenetik jo izan duk itsasoan eta traineru munduan.

Hik azterketarako datuak bildu nahi izan hituen.

Sentsazioak oso garrantzitsuak dituk baina datuei ezin zioagu bizkarra eman. Azterketa zientifikorako ezinbestekoa duk hidrodinamika kanala. Southamptoneko unibertsitatean, ikasketak egindako lekuan, bost traineru aztertu genizkian *Towing Tank* esperientzia hidrodinamiko-en kanalean. Simulagailuan, herritarrek ulertzeko moduan esanda. Azterketak egiteko modeloak behar genizkian eta Fontanen, Cuestaren, Amilibia zaharraren eta



berriaren –arripadura duena eta platanitua deitua– bi metroko maketak egin genizkian. Baita nire lehen diseinu baten beste maketa bat ere. Nire lehen irudipenak frogatzeko aukera izan nian eta gustura bueltatu ninduan.

Dirudienez, kanaleko olatuetan ondorio nabarmenak aterra hituen. Tknikaren bitartez egin huen simulagailuan datu onak eman zituen ontziaren hurrengo edo umea, hobekuntza batzuk sartuta noski.

Hala duk. *Tknikan* egin genian trainerua, debaldeko lanean ordu asko pasata. Bost-sei taldek probatu zitean nire bigarren diseinu hori, eta orain merkatura ateratzeko molde berria egiten ari gaituk Brankan. Hirugarren jenerazioko traineruak berrikuntza batzuk izango dizkik, aurrekoa uretan probatu genuenez handikikasitakoa kontuan hartuta ari gaituk lanean.

Datutan oinarrituta, azkarra izango al duk hire ontzia?

Traineru guztietan bi alderdi aztertu behar dituk beti: ur azpia edo gaztelaniaz *obra viva* deitua eta ur azaletik gorakoa. Ur azpiko zatiak erriotan edo itsaso barean markatu zitzakek diferentziak; gure traineruak urarekin kontaktuan dagoen azalera txikiagoa dik eta horrek erresistentzia frikzionala gutxitzen dik. *Obra muerta* deituak eragina dik itsasoan, brankan eta poparean. Gure ontziak bolumen banaketa ezberdina dik: batetik branka finagoa, bestetik gerrian eta txopan gorputz gehiago dik. Bi arrazoi horienatik poparean egokia goa duk eta brankaz nabigazioa gozatu zezakek. Probatu dutenek esan didatenez, oreka handiko ontzia duk, eta ziaboge-

“Burua paraxuta bezalakoa duk, irekitakoan bakarrik funtzionatzen dik”

“Bost-sei taldek probatu zitean nire bigarren diseinua, eta orain merkatura ateratzeko molde berria egiten ari gaituk Brankan”

“Brankan lehiako ontzietan diseinu proposamen berriak egiteko gaudek”



tarako azkarra.

Entzun dudanez, moila gaineko kontua igual duk, trainerua estruktura aldetik ere berritzaille samarra duk.

Pedreñako traineru berriak inflexio puntua markatu zian alor honetan. Aspalditik buruan nuen ideia pare batekin aurrea hartu zidatek. Haren jarraipena duk gurea, ontzigintza tradizionalak utzitako arrastotik ezberdina: koaderna estankoak eta osoak zeuzkak, elementu longitudinal lateral indartsuak dizkik eta kaskora integratuak. Zentzu gehiegirik ez duten elementu asko kendu dizkiagu eta oso zurruna eta ari-na atera duk, egia esan.

Zer den gure herria: enpresa baten proiektua ezagutzera etorri eta txalopari buruz joan dituk dozena erdi galdera.

Branka Composites ez duk traineru egilea bakarrik izango. Ikerketari garrantzia eman nahi diok, ikusten denez.

Lokala hartu eta lau lagun ari gaituk lanean. Hala duk, ikerketan eragin nahi nikek. Lehiako ontzietan diseinu proposamen berriak egiteko gaudek, besteak beste. Baina eraikita dauden ontziekin ere azelerometria bidezko azterketa egiten diagu itsasontziaren prestazioak hobetzeko, adibidez, traineru baten errendimendu dinamikoa optimizatzen. Bestalde, baxurako arrantza ontzi baten efizientzia energetikoa edo belatontzi baten abiadura potentziala aztertzen aukera eskaintzen diagu Branka Composites enpresan.

Ikerketa duk adar bat, karbono zuntzaren lanketa bestea.

Hara hor Composites hitzaren zergatia. Material konposatuak erabiltzen dizkiagu ontzigintzan: bidrio edo karbono

zuntza bezalakoak errefortzu gisara, eta poliester edo epoxi erretxina. Beharraren arabera bat edo bestea erabiltzen duk. Baina teknikak menderatu behar dituk, eta gu *infusion por vacio* delakoarekin ari gaituk lanean. Eskuz aritu beharrean, bomba baten bidez presio negatiboa sortzen diagu erretxina injektatzeko. Oso prestazio onak eskaintzen dizkik teknika honek. Ontzigintzan ez ezik, aeronautika, automozio eta energia berriztagarrien arloan gero eta leku handiagoa ditek material konposatuak. Diseinatu, fabrikatu eta probatu. Prozesu osoa Brankan bertan egiten diagu eta zikloa osorik gauzatzea interesgarria dela uste diat.

Beti teknologia berriei begira, ordu txikitik ordenagailuan egoten al haiz sarri?

Egon beharra zegok. Esaterako, 3D inpresorak erabiltzen hasi gaituk pieza txikiak egiteko. Zenbait pieza modu honetan egiten saiatzen ari gaituk, pixkanaka-pixkanaka lantzen eta aztertzen.

Ur azaletik gainera ateratzen den hidrofoil prototipo batekin ere probetan ari gaituk. Oso potentzia txikiarekin abiadura ikaragarriak lortzeko gai izango duk. Itsas energia berriztagarriek ere etorkizun handia ditek. Hasiberriak gaituk, denborarekin joango gaituk esparruak gehitzen.

Ezin da lo hartu esanaz itzali dugu grabagailua. Lasak estropadak ontzian ikustera gonbidatu gaitu. Kuadrillan joan gara abuztuko igande eguzkitsuan. Nabigazioaz ikastaro trinkoa hartu dugu Zarauzko estropada eremu laburtuan.



Aian elkartasuna garaile


Hamaika kirol txapelketa izan dira sandonato eta sanlorentzoetan: toka, pilota, herri kirolak... Txapela noren buruan jarri? Hori izan da hainbatetan dema. Baina txapeldunak aiarrak izan dira, festetako egitaraura batu duten berritasunak arrakasta handia izan du eta Sahararen alde desioak sutan jarri eta 300 su bola zeruratu dituzte.





Sortzaile eta parte hartzaile

Elkarlanean sortzen dituzte Aiako festak. Festa batzordea herriko gazte zein helduek osatzen dute, eta guztien artean, guztientzako izan diren festak antolatzen dituzte. Elkarrekin lanean ikusiko dituzu 14 urteko gazteak eta 40 urtekoak; emakumeak nahiz gizonak. Guztiek dute lekua Aiako festetan.



Portu
ERRETEGIA

Sanjo, Errika Automa, 4/6
943 89 34 04
20809 AIA-ORIO

*Erretan, berenak, aldiak
erretan, berenak, aldiak*

Alustiza Autobusak
Alustiza Balmak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 / Mungikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

Azkue

Tf: 943 130 438

Azkue

arkaitz taberna
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

AIRDATTA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

KAJUA

TUPI-TAPA, TUPU-TAPA, KAJUARA
BOKATA EDERRAK JATERA

Amikarri portua 35, Itebea
Tel. 943 848 000

BODEGAS Gailur

ZUDUGARAI

Gabriel Txabala

Tel. 943 83 03 88
Fax 943 83 03 88
gabriel.txabala@bodegasgailur.com
www.bodegasgailur.com

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOAK

Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



Bisiguaren Laguna sariak, lehen aldiz

Urtero bezala, herriko plaza jatetxe dotore bihurtu zen uztailaren 16tik 19ra. Berrikuntzarekin etorri da aurreten jaiak: Bisiguaren laguna sariak eman dira lehen aldiz. Paxita Peña eta Vicente Zaragueta izan ziren omenduak. Bisigua Orioko erara prestatzeagatik, lehenak; Juan Zaragueta ren iloba izanik, Oriorekin duen loturagatik, bigarrena.

Zaraguetari Antxon Mendizabalek egindako taila bat eman zioten, XVI. mendeko itsasontzi bat irudikatzen duen ateburuaren erreplika. Paxitari bertso bat egin zioten, eta Joxe Anjel Zalduek abestu egin zion.

Bertsoa: karkara.eus/komunitatea/ja2er/1437125480616

KARKARA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

MENDIZABAL
ARROZTEGIA
*Nesken erretirak
eta egurrenak*

943 831 175 Alkerm bidea
645 706 497 601. Aiz. etxea
mendizabaltg.net 20810 Aia-Olea

He gurendegia
MARIJO

 Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - beheak
Tel. 943 13 47 29
ORIO

OREKA
FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgia
Artritis
Zefalgiak

Masaie terapiak
bentsoak, laguntza
eskuak, terapia
osteopatia

943 13 35 37
Arizama Kalea, 11 Beheak


kutixi
kafetegia
GOSARI GONDAK
Arizama 8, 20810 Olea
Tel. 943 13 15 11

(D)udako lanpostuak



Zigor Esoain

Udako lanpostuetarako, urtero Arkupek antolatzen duen desfileko modeloak aukeratzen zabiltzateela dirudi, eta gai hori serioagoa dela uste dut.

A morrua, desadostasuna, kexa eta umore txarra gaizki ikusiak dauden garai eta gizarte honi boikot egitera nator, udako egun eguzkitsua goitik behera izorratzen duen galerna bailitzan.

Ulertu nahi ez duen edonorentzat galtzaile txarra izango naiz ziurrenik edo edozergatik purrustaka dabilen kexatia. Baina, dakizuenez, ez dago ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik.

Uda garaian, herrian sortzen diren lanpostuen aukeraketan egon ohi den *katxondeoa* salatu nahi dut. Ez da lehen aldian gai honek polemika eragiten duena, eta orain arteko sistemak jarraitzen badu ez da izango azkenengoa ere. Gauzak gaizki egitera joan eta ezin dira okerrago egin. Pentsa, *ollagorran* igande arratsaldetan antolatzen diren ping-pong txapelketek ere seriotasun handiagoa edukitzen dute! Zuek egin barre, baina, broma dirudien arren, zoritxarrez, hau da errealitate gordina. Janariak freskotasuna galtzen duenean bezala, ustel usaina dario hautaketa prozesuari. Honekin ez dut esan nahi orain arte aukeratuak izan direnek merezi ez zutenik, baizik eta gardentasuna falta dela aukeraketan.

Lehenik eta behin, hautatze proba horren pauso guztiak argiak eta garbiak izan behar dute, eta gaur egun ez da horrela; bakoitzak atera duen puntuazioaren berri eman gabe aukeratuen zerrenda aurkezten baitute. Hainbat publikazioen bidez adierazten dute nortzuk izan diren hautatuak lanpostu bakoitzerako; baina, non daude hori egiaztatzen duten puntuazioak? Aukeratu eta ez aukeratu zerrenda egin beharko lukete NAN zenbakiarekin eta froga bakoitzean bakoitzak izandako puntuazioarekin. Horrela ez litzateke inongo gaizki ulerturik egongo. Urtero Arkupek antolatzen duen desfileko modeloak aukeratzen zabiltzateela dirudi, eta gai hori serioagoa dela uste dut.

Erreklamaziorako unean ere bada inkoherentzia bat, nahiz eta aukera eduki ez dago denborarik desadostasuna onartu eta horri buelta batzuk emateko. Emaizak eman eta lauzpabost egunetara aukeratuak lanean hasi behar izaten dute...

Idatzi honen ostean, gauzak aldatzen ez badira behintzat, hurrengo udan ere nire izenik ez da agertuko hautatuen zerrendan, baina, sentitzen dudana ez askatzearen damurik ez dut izango behintzat. Ez da gutxi!

Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzaia 63 - 20910 Oriu - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLÓGIA ZENTROA



Seguros Bilbao
Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Arizaga, 2 - 2ª eskerria
20910 Oriu (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Idoia Etxeberria

Santioko harrilekutik Boisera

Handik ekarritako bizipenik preziatuena, bertan izandako taldekideok sendotu dugun harremana izan da

Lehenik eta behin eskerrak eman behar dizkiot bidaia hau egiteko aukera eman zidan Joseba Ostolazari, berak eman baitzien *Jaialdi 2015*eko antolatzaileei nire berri. Haiei ideia polita iruditu eta hara joateko gonbita egin zidaten. Joseba lehenago izana zen, hirugarren aldia zuen; baina, niretzat, guztia berria zen.

Hegazkina hartzeko lehen aldia nuela eta urduri xamar igaro nituen bezperako egunak. Baina behin hegazkinera sartu eta aireratu ginenean, momentuaz gozatzea besterik ez zen geratzen.

Lur hartzearekin batera aldaketa izugarria antzeman genuen, hurak ez baitu Euskal Herriaren antzik. Bero itzela, auto izugarriak, pelikuletako etxeak... eta jatekoa, eskasa.

Lehenengo bi egunak prestaketa lanetan pasa genituen: aizkolarien egurrak prestatu, erabili beharreko harriak aukeratu eta prestatu –burnizko harriak soldatzen buruhauste batzuk izan zituzten Jokin eta Josebak–.

Momentu bereziena *Sport Night*eko ekitaldia izan zen. 5000 zaletik gora lanean genbiltzan kirolariei begira... Izugarria! Hemengo erakustaldietara ohituta gaude, baina hura *show* bat izan zen, inoiz ahaztuko ez duguna. Gau horren ondoren ohartu nintzen bidaia hark merezi izan zuela.

Hurrengo goizean jada ez ginen ezezagunak, pertsona famatuak bagina bezala tratatzen baiktuzten: kalean izeenez deitzen ziguten, autotik klaxona jotzen ziguten, argazkiak ateratzeko gelditzen gintuzten, bizikletak alokatzera joan eta ezagutu gintuztenean guretzat dohainik zirela esan ziguten...

Hori guztia bikaina izan zen arren, dudarik gabe, handik ekarritako bizipenik preziatuena, bertan izandako taldekideok sendotu dugun harremana izan da.

azku
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
Tel.: 943 13 25 32

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orrio (Gipuzkoa)

943 836 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

943 831048
610 697 668

www.fotoramiro.com

BELOKI AUTOMOZIOA

TEL. 606 06 38 60

Aukeratutako ibilgailuak
Km.0-koak
3-4 urtekoak
Merkeak

Ibai Onda, 3 • behea **ORIO**

RESTAURANTE

Galserna

Telf: 943890416

Izarra Bideoa

KARTUTXOAK bertiz kargatzen ditugu !!

ESKOLARA bueltan

DELL 500GB 299 €

7.95 € -tik hasita

5 € - 8 GB

5 € - 8 GB

Eusko gudari, 44 • 943 833 881

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUTU ZORBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.com

20010 ORIO

- ATAK INKIZIEN DITUAN
- SARRAILA-ZILINDRO ALDARITAK
- ATAK IXTEKO MALGUNKEN ALDARITAK
- KOMUNITATERENTZAKO ZORBITZUA

PIZZERIA KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Katu MORIA

DISOLBIZIETA PHILIP

ESTROPALARZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

www.katunot10.com
Kartutxoa
808 89 11 29

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Iñaki Arrillaga eta Dionisio Redondo saria jasotzen 1970eko Nazioarteko Estropadan. IÑAKI ARRILLAGA

Itzali telebista

Oroimenaren kutxa

Ehin bakarrik izan dute tokia jubentilek Orioko nazioarteko estropadetan. Bigarren edizioan izan zen, 1969an. Egun hartan Orioko lauko ontzia hantxe zegoen, Marrotako irteeran, uretako epaileek estropalariei abiatzeko agindua eman zain. Halako batean, Orioko mutilek hantxe ikusi zituzten gainerako ontziak ziztu bizian abiatzen, eta berak hantxe geldirik: *baina zer arraio egiten dute horiek, nora doaz?*. Kontua da epaileek agindua emana zutela, baina frantsesez. Nazioarteko arraunean frantsesa da hizkuntza ofiziala eta Orioko mutilek frantsesez jakin ez. Epaileek, hala ere, estropada geldiarazi eta berriro eman zuten abiatzeko agindua, oriotarrei bigarren aukera emanaz.

Jendeak zer hizkuntza darabilen, horrek badu bere garrantzia. Gogoan dut nola idatzi zuen behin Patxi Danbolinek Karkaran berak nahiago lukeela oriotarrek estropada guztiak galtzea, Orioko arraunlariek beren artean denak erdaraz jardutea baino. Aurtengo udan ere sumatu dut jendea haserre Bermeoko arraun klubaren ordezkaria ETB1en, uskarazko katean, estropada batean bai eta hurrengoan ere ai, erdara hutsez ikusita. Bermeo bezalako herri euskaldun etopeto bateko eleduna erdalduna, halako batean aldatu zuten arte; bitartean, Sestaokoa eta Portugaletekoa euskaraz.

Gizakiak komunikaziorako erabili ohi dituen baliabide guztiak ez dira hitzezkoak. Badira bestelakoak ere, gaur egun tresna asko daude komunikaziorako baliatzen ditugunak. Horien artean bat GPSa da. Aurtengo Santiago egunean Frantziako tunel baten sabaiaren kontra lehertu zen euskal gazteez betetako autobusaren txoferrak honela arrazoitu zuen berak izan zuen oker ikaragarria: *GPSak eramanez bide hartatik*.

San Inazio bezperan, berriz, kamioneta batek Orioko zubipeko tunelaren kontra lehertu zuen bere kajaera. Zenbat ote dira bere autoa han txikitu dutenak. Auskalo! Garai batean, horrenbeste urte ez direla, tunela baino 20 metro lehenago langa bat zegoen zintzilik, joz gero mugitzen zena, tunelaren altura komunikatzen zuena. Abisua. Gero kendu egin zuten. Zergatik? Auskalo! Komunikazioaren joan-etorriak, atzera eta aurrera.

Hizkuntzak ikasteak bezala, teknologia berrietako tresnen erabilera egokia ikasteak ere denbora eskatzen du, eta ahalegina. Ikasi bitartean gauza xebreak gertatzen dira, adibidez telefonoak jotzen du meza erdian; tarteka, tragediak ere bai: entzierroa telefono mobilarekin grabatzen ari den gazteak bere heriotza grabatzen du, zezenak adarra nola sartzen dion.

Beste alde txar bat da trasteek sortzen diguten menpekotasuna, ez dakigu haiek gabe ibiltzen. Traineruen Espainiako txapelketan huts egin zuen telebistako GPSak eta ez zizkigun ematen traineruen arteko benetako aldeak. Kaosa sortu zen teleikusle on artean, nerabeak iPhone edo tabletik gabe baino galduago ibili ginen denok, ematen zuen hura gabe ez zegoela jakiterik aurrena zein zihoan ere. Balizak jartzen ere ahazten ari zaigu aspaldi honetan.

Lehengo batean pintada bat ikusi nuen pareta batean: *itzalizan/k telebista* eta gogorarazi zidan orain dela 40tik gora urte gure profeta partikularrak, gure Oteizak, esandakoa: *zibilizazio berriko gurutze horietatik –teilatuetako antenez ari zen– sartuko digute kaka etxe guztietako sukalderaino*. Telebista hartzen ari den bidea kontuan izanda, uste dut pintadak eta profetak biek ere arrazoi dutela. Eta gaur egun askoz gehiago dira kaka zabalteko ditugun baliabideak.

Hizkuntzak ikasten eta trasteak itzaltzen hasi behar dugu.



Gizartea

Betiko Market azoka, betikoa ez denaren erakusleiho

Abuztuaren 16an sortzaileen merkatu bilakatu zen Orioko plaza. Guztira 13 postu jarri zituzten eta horietatik bi oriotarrek jarritakoak izan ziren: Goiuri Unanue eta Maider Goenaga. Antolatzaileak KIMU enpresakoak izan ziren eta bertako hainbat kide ere oriotarrak dira. Jende mordo bildu zen Orioko plazan, bereziki goizean. Abuztuaren 30ean berriz antolatuko dute, baina ez da asteburuko azoka bakarria izango; larunbatean, abuztuaren 29an, outlet azoka izango baita herriko plazan. Goizez eta arratsaldez izango dira, bi egunetan, azokak.

@karkara.eus/orio/1439383403648



HASI TXIOKA

Txiokatu Kontxan #aupario traola erabilia!



Hezkuntza

Turrumuskik kudeatuko du ludoteka

Goiko Kaleko bi etxebizitzan jabetza zuen Udalak. Orainen eta EAJren aldeko botoekin etxebizitza horiek salduta lortutako diruarekin ludoteka egitea onartu zen. Ludotekaren egitura eta funtzionamendua erabakitzerako garaian Txurrumuskiren iritzia hartu dute kontuan. Orain, Txurrumuskiren eskutan utzi dute ludotekaren kudeaketa. Irailean zabaltzea espero da, Talaimendiren lokalaren azpian.

Politika

Usandizaga EGI taldeko idazkaria

Gipuzkoako EAJko gazteek osatzen dute EGI. 1904an sortu zen taldea, duela 111 urte, eta azken saioan taldea eraberritzeko unea zela ikusi zuten. Taldea berrituta idazkari berria izango du EGIk, Ainhoa Usandizaga oriotarra. Jon Ander Azpiroz aiarra ere taldeko kide da. Azken hauteskundeetan Usandizaga Batzar Nagusietarako zerrendetan aurkeztu zen, eta botoak lortuta, batzarkidea da geroztik. Orain, EGIko idazkaria ere izango da.

Gizartea

Urola Kostatik igaroko da EMM

Emakumeen Mundu Martxak Urola Kostako lurrak zapalduko ditu. Urriaren 1ean izango da hori, Zumaiara iritsiko baita. Oriotarrak eta aiarrak, eskualdeko gainontzekoak bezala, Mundu Martxara batu daitezke, eta lan horretan dabilta dagoeneko Urola Kostako plataformako kideak. Uztailan sortu zuten eskualdeko plataforma hainbat emakume feministek eta irailaren 3an bilkura irekia egingo dute Zumaiako Gaztetxean.



Egoitz Elizagirre @egoitzeizagirre · uzt. 20

Gaur harrituta begirutzen dio herri kirol munduak, plazara ateratzen den bakoitzean! #pergolapetikplazara zorianak @IdoiaEtxeberria

Elkarizketa ikusi



Aitziber Garmendia @AitziGarmendia · abu. 9

KRISTONAK Aiaako festak! #OndokoHilobikoTipoa antzeztu ondoren #Egan berbenara. EARKI PASA DEU, ESKERRIKASKO HERRITAR GUZTIEI! Gau latza.. 🍷

Lander Sarasola retweeted



Ibai @ibai · abu. 10

Oporretatik bueltan kebab berria probatzen. Pakistaniar tankerako gaztea banaketan, nik erderaz, ta berak #buskeraz erantzuna. To! #orio



Itzi Oiasagasti @itzigasti · uzt. 15

@Iertxundi @egoitzeizagirre batzuk neskak ikustera datoz eta besteak mutilak ikustera. Oso (oso) gubi biak ikustera datorrena #nereustean



Kirola

Boiseko Euskal Jaian Ostolazaren eskolakoak

Joseba Ostolaza, Jokin Eizmendi eta Idoia Etxeberria izan ziren Ameriketako Boise herrian bost urtez behin antolatzen den jaiari. Harri-jasotzaileek hiru erakustaldi egin zituzten, horietatik garrantzitsuena lehendabiziko izanik, aurkezpen egunekoa. Lanera joan ziren arren, aisialdirako astia ere izan zuten eta inguruko hainbat txoko eta han bizi diren hainbat euskaldun ezagutu zituzten. Esperientzia gogoangarria eta ahaztezina, errepikatzeko modukoa.

@karkara.eus/aia/1439199746227



Kirola

Jokoetako sailkapen bila

Abuztuaren 30ean Frantziako Aiguebelette hirian aulki mugikorreko Munduko Txapelketa hasiko da. Txapelketako dominak jokoan egoteaz gain, Rio 2016 Joko Olinpikoetara sailkatzeko txartelak izango dira lehian. Orioko Arraun Elkarteak ordezkari izango du munduko txapelketan. Lemazain gabeko laukoan, pisu arinean, Imanol Garmendia eta Ander Zabala izango dira; eta, lemazain zortzikoan, Jaime De Haz eta Jon Carazo izango dira. Mundialaren bila ez, baina Joko Olinpikoetara sailkatzeko txartelaren bila joango dira Orioko arraunlariak. Hori da beren helburua.

@karkara.eus/orio/1439547369818

Bisiguaren festa, itsasoarekin loturiko asteburua



@karkara.eus/orio/
1437377076624



Ainhoa Goenagak murala margotu du Lizardi Institutuan



@karkara.eus/aia/
1437476126191



Sahararen alde su bolak zeruratu dituzte Aian



@karkara.eus/aia/
1439199946151



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ **Haur kotxea salgai:** Bebe Comfort Streety Plus. Egoera onean; kapa-zu homologatua, maxicosi, paseorako aulkia, burbuila eta boltsa ditu. 200€. Tf: 662234723 -Antonia-.

■ **Pisua salgai Aristerrazu-Aian.** 70 metro karra-tu, ia berria. bi logela, komuna, egongela handia eta sukalde handia. Gara-jea eta trasteroa barne. 129.000 euro. Tf: 628 271 211.

■ **Salarako altzaria,** gere-ziondoaren egurrarekin egindako liburutegia. Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremanetan jartzeko deitu 649289154

telefonora.

■ **Pisua salgai Abaromen-di kalean.** 61 metro karra-tu ditu eta 140 metro ka-rratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukal-dea. Erabat hornitua. In-teresa duenak deitu tele-fono honetara: 637419729.

■ **Pisua salgai edo aloka-gai Orion, Kale Nagu-sian.** 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, sal-menta 140.000€ Intere-satuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira -Paki-.

Lan eskaria

■ **Gizonezkoa prest base-rrian lan egiteko.** Espe-rientzia daukat. Jose

Azur. Tf: 674123 293

■ **Garbiketa lanak egite-ko,** zahar nahiz helduen zainketa eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea. Intere-satuak deitu dezala 636 188 388 -Mayerling-.

■ **Lan bila dabilen ema-kumea.** Sukaldari titulua daukat, eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita haurren zaintzan eta garbiketan. Intere-sa duenak 695 914 242 zenbakira deitu dezala.

■ **Lan bila nabil tume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barne-koa edo kanpoko-**. Intere-sa duenak deitu telefo-no honetara: 634 920 471 -Maria Jose-

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:52 eta 09:14	00:38 eta 12:55	☾
02	07:38 eta 20:01	01:23 eta 13:42	☾
03	08:25 eta 20:51	02:10 eta 14:31	☾
04	09:17 eta 21:48	03:00 eta 15:25	☾
05	10:18 eta 22:56	03:56 eta 16:29	☾
06	11:33 eta ____	05:02 eta 17:45	☾
07	00:20 eta 12:57	06:20 eta 19:09	☾
08	01:43 eta 13:14	07:39 eta 20:22	☾
09	02:50 eta 15:11	08:43 eta 21:18	☾
10	03:40 eta 15:56	09:32 eta 22:01	☾
11	04:20 eta 16:33	10:12 eta 22:36	☾
12	04:54 eta 17:07	10:47 eta 23:09	☾
13	05:24 eta 17:37	11:20 eta 23:40	☾
14	05:54 eta 18:07	11:51 eta ____	☾
15	06:23 eta 18:37	00:11 eta 12:23	☾
16	06:52 eta 19:07	00:42 eta 12:55	☾
17	07:22 eta 19:38	01:13 eta 13:28	☾
18	07:54 eta 20:12	01:47 eta 14:04	☾
19	08:30 eta 20:51	02:23 eta 14:44	☾
20	09:14 eta 21:42	03:05 eta 15:33	☾
21	10:12 eta 22:53	03:59 eta 16:37	☾
22	11:31 eta ____	05:09 eta 17:56	☾
23	00:21 eta 12:57	06:29 eta 19:14	☾
24	01:41 eta 14:07	07:42 eta 20:20	☾
25	02:42 eta 15:04	08:42 eta 21:14	☾
26	03:34 eta 15:54	09:33 eta 22:02	☾
27	04:20 eta 16:40	10:20 eta 22:48	☾
28	05:04 eta 17:24	11:16 eta 23:32	☾
29	04:48 eta 18:09	11:51 eta ____	☾
30	06:31 eta 18:54	00:16 eta 12:36	☾

Orio

Azokak

■ **Abuztuaren 29an,** Outlet azoka Nikos clown eta Xabi DJarekin, egun osoan zehar, Orioko plazan.
 ■ **Abuztuaren 30ean,** Betiko Market, egun osoan zehar, Orioko plazan.

Musika

■ **Abuztuak 28,** Josu Arambururekin eta DJ Illarrarekin elektronika saioa, 23:59an, Kalakari tabernan.

Jaialdia

■ **Irailak 12,** Juneren hegoak elkarteari laguntzeko Karela festa. Indoor triatltoa 10:30ean, crossfit 12:00etan, zumba 16:00etan, jump 17:00etan, dreaming ona a bike 18:00etan eta, gainera, erronka familiarra, bazkalgunea, zozketak... Guztia Karela kiroldegian.

Aia

Lehiaketak

■ **Irailak 5, II. Aia-Orio triatltoi txikia eta triatltoi herrikoia,** 10:30ean hasita.

Laurgaingo San Mielak

■ **Irailak 25,** auzo afari herrikoa, 21:00etan, Atsedan Toki elkartean 25 euroren truke. Izen ematea Iturriozen irailaren 24a baino lehen. Afalostean, Izer eta Alabier.
 ■ **Irailak 26,** mus txapelketa, 16:30ean. Bikoteko 20 euro. Gauean Itsaso eta Irune Elizagoien trikitilariak.
 ■ **Irailak 29,** 10:00etan meza. Jarraian herri kirol erakustaldia trikitilariekin.

Podologoa

■ **Irailaren 19an,** podologoaren kontsul-ta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144

ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA:

- 1ean, Azaldegia
- 2an, Zulaika
- 3an, Lasa
- 4an, Larrañaga
- 5 eta 6, Mutiozabal
- 7an, Larrañaga
- 8an, Zulaika
- 9an, Lasa
- 10ean, Azaldegia
- 11n, Lasa
- 12 eta 13, Etxeberria
- 14an, Zulaika
- 15ean, Lasa
- 16an, Larrañaga
- 17 eta 18, Lasa
- 19 eta 20, G. Artifiano
- 21etik 25era, Lasa
- 26 eta 27, Azaldegia
- 28an, Larrañaga
- 29an, Lasa
- 30ean, Iriarte

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

Lizaso
dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

BEARTEGIA
PATXI OLIDEN
BEARTEGIA



PATXI OLIDEN

Hamango horago.
Ereko produktua: tripa, odolki,
txokona, txanxo, iraketa...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

regiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak

2015-2016
ikasturtea

Irailaren 1etik 15era
MATRIKULA
ZABALIK

LASARTE-ORIA
Udal Euskaltegia

Beteko kale bidea, 1
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943.572083
FAX: 943.571290
lasanju@hotmail.es

INES ASINJO
IBAI ONDO 13
20810 ORJO

INSTALACION DE VENTANAS



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943.11.00.77
Fax: 943.51.71.50

ZARAUTZ  **ORTOPEDIA**



Herriko barra kalea, 11-14
Tf: 943 835 883
ortopediazarautz@hotmail.es

Asteleheneretik ostiralera
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatetan
10:00-13:00

ZAUDEN
LEKUAN
ZAUDELA



karkarous



Imanol Ilarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

LEUNDA
OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ASTELEHENERETIK LARUNBATETARAINO
7:00 - 20:30

IGANDE ETA JAIEGUNEAN
7:00 - 13:30

Tel: 943 89.00.67

